

**DE AVIONES Y MAIZALES**  
**TIERRA DE DURANGO**  
**URKIOLA, 20 URTE**  
**ETORKINAK**

**astola**

**ikerketa eta historia**

DURANGALDEKO  
URTEKARIA

3 zk. 2009  
5€

# AMERIKAKO ABENTURA

TEXTO: JOSE MARI ETXANIZ

**EZKURDIKO** Jai-Alai frontoian mutikoak zesta-puntan jokatzeko ikusteak oso leku garrantzitsua hartu du Durangoko inguruetakoko pilotazaleen bihotzean. Haztegi handia izan da, eta bertan ikasle saiatuek, Urbietta "maisua" agindupean, "Ameriketara" profesional gisa joan ahal izateko prestatzen lanean jarduten zuten. 1887 da zesta-puntaren hasieratzat onartuta dagoen data. Joan den mendearen erdialdetik aurrera, pilotarien joan-etorria etengabea izan zen; Florida lehenengo, eta Las Vegasera, Rhode Islandera eta Connecticutera gero. Baina 1988an lan-gatazka sortu zen, eta hori izan zen Estatu Batuetan zesta-puntaren amaieraren hasiera. Ordura arte, 14 eremu zituzten, eta gaur egun, bospaseik eusten diote orduko garrari. Garra hura piztu zuenetako bat izan zen Javier Piedra García, Javier eta Miguelen aita, Ezkurditik eta "Uni"tik, garrari urte askoan eutsi ziotenak, eta Euskadin hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan zesta-puntak igoera itzela bizi izanaren eragile zuzenak.

Pilotarien zerrenda amaigabea izango litzateke, eta zerrendak soilik Estatu Batuetan "zumearen artista" horiek izan zituzten bizipenak laburtzeko ditugun bost orrialde hauek hartuko litzuke. Mundu zeharo desberdina, bai ekonomiaren ikuspuntutik bai bizimodu sozialarenetik. Guztiak aberastu dituen kultur topaketa.

Jauzi itzelak ziren, eta hori ordurako batzuk Durango eta inguruko airea utzi eta Las Palmasera, Mallorkara, Bartzelonara edo

Zaragozara joanak zirela, Amerikako abentura handiaren aurreko abiapuntu gisa. Batzuek entzunez baino ez zuten Bilbo ezagutzen, eta Miami, Orlando eta Tampa moduko hirietan bizitzen jartzea bizimodu aldaketa itzela zen. Beste batzuek AEBra jo zuten Kubatik edo Filipinetatik, baita Italiatik ere, Napoliko eta Milango frontoiek jarduten zuten eta.

Zesta-punta oso euskal pilotaren enbaxadore ona izan da mundu osoan, eta horren ondorioa



izan dira askori bizimodua aldarazi dioten anekdota eta bizipen ugari. Batzuk AEBn geratu ziren, eta beste batzuk aldi baterako emigrante izan ondoren, Euskadira itzultzen ziren, batez ere Florida edo Connecticut estatuetako frontoietan urte luzean jokaturakoan.

la denak bat datoz bi herrialdeen artean alde handia dagoela esatean, batez ere 70. eta 80.eko hamarkadetara begira jarritz gero. *Dena zen berria, eta desberdina. Hango hirien aldean, Dania herri bat zen, baina gaua iristen zenean, sei mila lagun ikus zenitzakeen frontoian, eta hori oso gauza handia zen. Hasieran ez zitzaidan herrialdea gustatu, bizimodua oso desberdina zelako, baina apurka-apurka egoera guztietara moldatzen zara.* Amerikarrekiko derrigorrezko kultur trukean "txokoak" aurki ditzakegu, euskal koloniaren ekarpen gisa. Kosta egin zitzairen eratzea, baina badira mitiko batzuk, Miamiako esaterako, gaur egun oraindik badihardutenak.

Juan Elejabarrieta Montrealetik iritsi zen Miamiara, eta harentzat ustekaberik handiena ibilgailuak izan ziren. *Euskadin 1500 bai ikustea "la leche"-zen, taxilariek eta aberatsek baino ez zuten eta; eta gero hemen "seat" autoa "aiga" baten maletategian sar zenezakeen, azaldu du ohiko graziaz. Beste ustekabeetako bat pertsona ezin lodiago haiek ikustea izan zen, 100 kilotik gorakoak. "Fast food" eta coca-cola besterik ez dute jaten, fundamenturik gabe. Gainera, ez dira mugitzen, distantziak direla eta, denak kotxez joaten dira. Hemen oso gutxi ibiltzen ziren orduan, dio Durangoko Elejabarrietarren gazteenak, eta gogoan du*

Ogiza.



Estatu Batuetan emandako lehenengo urtean etxetik kanpora bazkaltzen zutela, alogereko etxeetan elkarrekin zeudenetatik inork ez zekielako sukaldean ezer prestatzen. Gerora gauzek hobera egin zuten apurka-apurka, eta atakatik irten ziren. *Bizitzen ikasten joan ginen; izan ere, hasieran ez geneukan bat ere fundamenturik, onartu du.*

Abadiñon eskuko tradizioa izan dute beti, eta Ogiza zesta-puntako profesional izan zen hamabi urtean Orlando eta Quincyko frontoietan, Floridako oihan beteko eremu batean, estatuko hiriburutik, Tallasetik 24 milara. 1973tik 1985era bitarte egon zen bi eremu horietan, batetik bestera, eta azkenean Euskadira itzuli zen.

*Iritsi nintzenezan bero itzela igarri nuen, eta baserriko ogiaren falta sentitzen nuen. Gainera,*



*autoek harritu egiten ninduten, oso handiak ziren eta, eta gasolina oso merkea zen. Hala ere, bizimodua oro har, baita aire girotua ere, garestia zen, gogoratzen du.*

*AEBtan emandako denboraz oso oroitzapen onak izan arren. Ogizak beti eduki zuen begirada bere jaioterrian, Abadiñon. Bi hirietan ibili nintzen gustura; izan ere, pilotariak berberak ginen, eta oso gertu bizi ginen. Ni ez nintzen parrandan asko ibiltzen, baina barbakoak egiten genituen, eta Athleticen partidak irratiz entzuteko elkartzen ginen. Hala ere, Euskadin baino hobeto ez zaude inon, eta beti eduki nuen oso argi erretiratzean Abadiñora itzuliko nintzela.*

*Durangoko benetako beste produktu bat Pedro Mari García Garitaonaindia da, kantxan "Garita" izenez ezaguna. Floridara lehenengoz 1969an bidaiatu zuen, eta Orlandoko frontoira iritsi zen, gaur eguneko hiriburuarekin batere zerikusirik ez duen tokira. Oso txikia zen gaur egungo hiriaren aldean, Miamirekin alderatuta, baina nik Zaragoza eta Bilbo besterik ez nuen ezagutzen, eta itzela iruditu zitzaidan, dio Zaldibarko puntista ohiak.*

*Aldaketa bortitza. Etxean dena eginda edukitzetik, eta are gehiago Euskadin matriarkatuak izan duen indarrarekin, etxeko gizonak izatera. Apartamentu bakoitzean lauzpabost pilotari bizi ginen, eta bakoitzak zeregin bat geneukan. Batek etxea atondu, besteak erosketak, hirugarrenak bazkaria, etxeko lan guztiak banatzen genituen. Ez genuen arazorik, kalitateko elikagaiak*

*genituelako, hemen bezala. Distantziak direla eta, arraina izaten zen lortzen zailena. Euskadin, herri bakoitzean, ehun metroan denetik aurki dezakezu; han zailagoa zen, gogoratzen du.*

*Igandeetan frontoitik libre egoten ginen, eta eguna hurbil bizi ziren lagunekin ematen genuen, edo astirik bagenuen, Floridako beste pilotari batzuen etxeetara joaten ginen, distantzia egingarria zenean, jakina. Igandeetan, han, ez zenuen inor ikusten kalean. Dena hutsik. Etxezaleak ginen.*

 Garita.



## Merkataritza zentroak

Pedro zesta-puntako nomada bat izan da. Orlandon ez ezik, Danian eta Miamin (Floridako estatuan) ere jokatu du, eta kirolari karrera amaitzeko Bridgeporteko frontoian jokatu zuen, iparraldean, Connecticuten hain zuzen ere. *Oso aldaketa handia izan zen, batez ere klima-aldaketa handiagatik. Miamin ez bezala, etxeko bizimodua egiten genuen. Hotza eta elurra bereizezinak ziren, baina beste gauza askorekin bezala, moldatu egiten zara.*

Orain merkataritza zentroak modan daude Euskadin eta beste leku guztietan, baina orduan, Amerikako "mall" ospetsuak aparteko ikuskizuna ziren pilotarientzat. *Halako eraikinak ikustea duela berrogei urte, harrigarria zen. Hemen ibilbide laburrak egiten ohituta geunden, dena etxe ondoan geneukan, eta han merkataritza zentroetara joan behar zenuen, eta aparkaleku handi haiek ikusi, denda haiek, halako lonja erraldoi batean, guretzat sinestezina zen. Eraikin horietako askok gure asperraldiak leuntzeko balio izan zuten. Igandea ematea aukera bat zen, orain Arteara, Bilbondora edo Max Centerrena joatea den bezala.*

Hizkuntzari dagokionez, gaur egun arazoa txikiagoa da, gazteak hobeto prestatuta daudelako, baina orduan eragozpena izan zen. *Nire garaian ez genekien ingelesez, baina erosketak katalogoz egiten genituen edo, kasurik txarrean, keinuak egiten genituen; baina baziren pilotari beteranoagoak laguntzeko, egin nahi genuen erosketa berezi xamarra zenean, dio Garitak.*

Zalantzarik gabe orain, berrogei urte geroago, geratzen zaion kezka bakarra da denbora hobeto aprobetxatu behar zuela, hizkuntzak ikasteko esaterako. *Gu itsu-itsuan ibiltzen ginen. 15 edo 16 urterekin Kanarietara edo Zaragozara abiatzen ginen, AEBn jokatzeko asmo sendoarekin. Gaur egun, bizitzak ematen didan ikuspegi honetatik, argi daukat pilotari izango nintzatekeela berriro, nahiz eta beti pentsatzen duzun gazteak hobeto prestatuta joaten direla, eta, beraz, itxuraz behintzat, guk baino aukera gehiago dituztela.*

Adolfo Elizegi bigarren belaunaldiko pilotaria da; izan ere, haren aita ere Atlantikoaren beste aldean profesionaletan jardun zuen puntista izan zen. Lehenengo esperientzia Tijuana izan zen, baina laster jo zuen Floridara, Orlandoko frontoira hain zuzen. *Gehien harritu ninduen klima leuna eta han aurkitu nituen arraza-nahasketak izan ziren. Beti iruditu zait oso esperientzia ona Estatu Batuetan egon izana.*

Janaria aipatzen dute. 1996. urteaz geroztik Adolfo bere emaztearekin egon zen arren, beti ahalegintzen ziren Euskadikoen antzeko jakiak prestatzen. *Han espezia asko eta janari azkar asko dago. Guk beti jaten genituen babarrunak, dilistak edo porrusalda. Ia etxean bezala. Oraindik gogoan ditut Juanito Elejabarrietak txokora ekartzen zizkigun erreboilo erraldoiak, aipatzen du.*

Alderdi ekonomikoari dagokionez, Elizegi pozik dago, nahiz eta zenbakiak eginez espero duzuna baino gutxiago aurrezten den, baina inoiz ez zen soldatengatik

# MIAMI

Durangaldeko pelotariak Miamin.

Irasuegi

Garita

Ermua

Elejabarrieta II



Durangaldeko pelotariak Floridan.



## DANIA JAI ALAI PALACE

Elizegi

Alfredo

Ermua

Gorroño

Alex

Elejabarrieta

Zarrabeitia







kexatu. Ondo irabazten zuen. Baina baziren beste baldintza batzuk ere, etxeko gastuak esaterako, ezkondata egotean zugar bakarrik daudelako, eta lau edo bosten artean banatuta, ezkongabeak bezala. Egunero jokatuz, gehiago gastatzen duzu zestetan, baina oro har, pozik nago esperientziarekin, amaitu du.

## Negozioak eta Athletic

Gehienak Euskadira itzuli ziren Amerikako lurretan barrena izandako bidaiaren ondoren, batez ere 88ko greba luzearen ostean, pilotarien interesentzat kaltegarriena izan zelako. Beste batzuk, asko, AEBtan geratu ziren. Familia instalatutakoan eta gazteak Amerikako bizimodura moldatuta, egoitzak bereziki Floridan kokatu zituzten, hori izan baita, gainera, Amerikako eremu gehieneko egoitza.

Negozio bati ekiten ausartu zirenen artean Jesus eta Juan Elejabarrieta anaiak aipatu behar ditugu; Miguel Piedra eta Oregi markinarrarekin batera, Embutidos El Quijote enpresa sortu zuten, egoitza Miamin dauka eta gaur egun Floridan ez ezik AEB guztietan da ezaguna. Fermin Sobrón errioxar adituaren laguntza izan zuten. Fermin Baños del Río Tobían jaioa zen, "Barberito I" Abel San Martín esku-pilotari handiaren jaioterrian. Hamaika neke izan zituzten baimen federalak lortzeko, txerriak zelako, baina gaur egun gorantz doan industria da. "Beste" euskaldunak dira. Hainbat arlotan edo negozio-enpresetan bertan lanean geratzea erabaki zutenak, nahiz eta ia urtero egiten dituzten bisitei esker, ez dute Euskadi ahaztu. Hemen dituzte familiak, gurasoak, neba-arrebak eta lagunak, eta afektuzko lotura estua dute haiekin. *Erretiratzeko zain nago dagoeneko, gutxi falta dut eta. Bi*





*seme-alaba eta lau biloba ditut, eta Miami eta Durango artean bizi nahi dut.*

*Miamin geratzeko erabakia berehala hartu genuen. Seme-alabak unibertsitateko ikasketak amaitzen ari ziren, eta estatu batuarrak dira; beno, neska Euskadin jaio zen, emaztea erditzeko zorian zegoenez ez ziotelako bidaiatzen utzi, dio Juanek, ia egun berberean zesta-puntako pilotari izateari utzi eta txorizo-fabrikatzaile bihurtu zen berberak. 1988ko grebarekin bat etorri zen. Etxeko fabrikazioari ekin, eta grebari ekin zioten. "El Quijote" izena jarri genion. Larrialdi asko pairatu genituen, Unioneko diru-laguntza jasotzen genuen, eta frontoitik ezer ere ez. Gainera, zaila da produktu ezezagun batekin eta herrialde arrotz batean hastea.*

*Adore-hitzak ditu "betikoarentzat", emaztearentzat. Emazte guztiek egin*

*zuten gure alde unerik zailenetan. Gogoia jarri genuen, sakrifizio asko, astelehenetik astelehenera egiten genuen lan, eta emazteen laguntza izan genuen, den-dena eman zuten. Horrela atera genuen negozioa aurrera, eta duela bi urte Embutidos Palaciosekin lortu genuen hitzarmenaren ondoren bide onetik goaz, sektorean potentzia handia da eta.*

*Juani buruz berritsu profesionala dela esan daiteke. Denera eta denontzat irekia. Adiskidetasunari buruzko oso iritzi ona dauka, eta bizitza osoan, horretan jardun izan du buru belarri. Harrotasunez esaten du estatu batuarrak ondo tratatu izan dituztela beti euskaldunak. Floridan ospe ona daukagu. Beti eduki izan ditugu atea zabalik. Burugogorrek gara, baina zintzoak, dio Elejabarrietak.*

*Euskadiko eta Estatu Batuetako bizimoduen arteko alderik handiena joan-etorriak dira.*



○ Durangaldeko pelotariak. Seminole Jai Alai. Orlando.

*Hemen, Estatu Batuetan, kotxez joan behar da leku guztietan, ez da Durangon bezala, pasioan irten, jendearekin elkartu, berriketan hasi, txikiteoan joan, edo afaltzera... Hemen Miamin, pozak eta penak denak etxera eramaten dituzu, eta askoz ere elkarriketa gutxiago dago. Bizimodua bakartiagoa da, eta hasieran gogorra da.*

Orain, Elejabarrieta II, kantxan Juanek duen gerra-izena, askoz gutxiagotan joaten da Miamiko frontoira. Txapelketak jokatzen direnean behintzat joaten da. Haien arteko harremana, Floridan geratu direnen artekoa

alegia, aldizkakoagoa da. Hilean bizpahiru aldiz elkartzen dira Miamiko txokoan. Bertaratzen direnen artean, bazkide "txorizogileak", Oregi eta Jesus anaia, eta "Txutxo" Larrañaga handia.

Han ere, hemen bezala, bihotzeko Altheticekin sufritzen dute. Gure "txokoaren" barruan dago Miamiko Athleticeko Peña sortu zuen elkarte, eta Canal Vascoren bidez, telebistaz ikusten dituzte partidak. Pentsatu ere ezin da egin noraino sufritzen dugun. Ez dut ahaztuko 2 eta 0 irabazten joan ondoren, Racing de Santanderrek hiru gol bikain sartu



eta berriro ere Kopako lehiaketatik kanpo geratu ginenekoa. Aurten finalean gaude, eta oso pozgarria izan da gu guztiontzat. Asko sufritzen dugu, baina Athletic taldea idolotzat daukagu, eta horrek are gehiago lotzen gaitu Euskadira. [E](#)

**Jose Mari Etxaniz**







# HUELGA DE LA IJAPA



**TRES AÑOS** duró la huelga de pelotaris de cesta punta de Estados Unidos. Tres difíciles años que terminaron en una situación delicada para la cesta punta y con el sueño americano de muchos de esos pelotaris.

En la década de 1980 había alrededor de 500 cestapuntistas vascos en Estados Unidos, repartidos en 14 frontones, 10 de ellos en Florida. Su situación laboral estaba, en muchos casos, condicionada por las arbitrariedades de los empresarios de los frontones que obligaban a negociar los contratos de forma individual y frontón por frontón. Los

suelos de estos deportistas eran desiguales, más bajos que los suelos americanos, sus contratos se rescindían sin ningún tipo de explicación, etc.


Ante esta situación y por decisión mayoritaria de los pelotaris se creó la IJAPA (International Jai Alai Players Association) con el fin de representarlos en las negociaciones con las empresas. Éstas se negaron en redondo a reconocer la IJAPA por lo que se fue a la huelga el 14 de abril de 1988.

Los huelguistas recibieron el apoyo del potente sindicato de Detroit U.A.W. que les aportó



© Pelotaris Durangueses de "piquete".

**De pié:** Apraiz, Aitor Aperribai, Aitor Totorika, Luis Cuerpo, Iñaki Aperribai, Angoitia, Barrietabeña, Sarasua, Patxi Agirrezabal (Vicepresidente de la IJAPA en Orlando) **Agachados:** Setien, García, Arkarazo, Bikandi, Pardo, Santibañez, Murua.



asesoramiento jurídico y les pagaba 100 dólares a la semana más el seguro médico.

Los pelotaris lucharon en los tribunales y por medio de piquetes que informaban a los espectadores de las razones de su protesta. Muchos, sobre todo los que tenían familia, debieron subsistir realizando otros trabajos de forma ilegal. En algunos frontones, que por arreglos con la empresa se comenzó a jugar, los pelotaris donaban el 35% de su sueldo al fondo de resistencia común.

La huelga terminó en 1991. Los tribunales dieron la razón a la IJAPA por lo que fue reconocida

como representante de los pelotaris y se readmitió a todos los que iniciaron la huelga. Pero la cara exitosa del largo conflicto traía un reverso amargo ya que la afluencia de público a los frontones y el movimiento de dinero de las quinielas cayó de forma drástica. No se pudo remontar a la situación anterior a la huelga: algunos frontones cerraron con la consiguiente reducción de jugadores en América y las condiciones laborales de los pelotaris apenas mejoraron.

### Jose Mari Uriarte

